

ZUMARRAGAKO HAUREN LAGUN DEN HIRIAREN BARNEKO KOORDINAZIO MAHAIAREN FUNTZIONAMENDUA

2023-2026KO HAUREN ETA NERABEEN TOKIKO I. PLANAREN
BAITAN



Aurkibidea

1. Zer da?	3
2. Nork parte hartzen du?	3
3. Zer funtzio du?	4
4. Noiz biltzen da ohiko izaerarekin?	4
5. Noiz biltzen da ezohiko izaerarekin?	5
6. Zein da 2023-2026rako aurrez ikusitako mahaiaren jarduera?	5

1. Zer da?

Zumarragako Haurren Lagun den Hiria koordinazio-mahaia da udalerriko haurren eta nerabeen politikak koordinatzeko organo egonkorra. Hurrei eta nerabeei (18 urtez azpikoak) eta haien familiei zuzendutako zerbitzu edo programaren bat duten edo haiek bideratutako jarduerak ongizatean eta bizi-kalitatean inpaktu esanguratsua izan dezakeen Udaleko sail eta/edo erakundeetako politikariek eta teknikariek osatzen dute.

Mahaia 2022ko urrian eratu zen eta, orain arte **6 aldiz** bildu da aparteko izaerarekin:

2022KO BILEREN ZERRENDA:

BILERAREN DATA	PARTAIDEAK	HELBURUA
2022/10/06	Udaleko 7 sailetako 9 pertsona	Prozesuaren aurkezpena eta hurrei, nerabeei eta haien familiei zuzendutako sail bakoitzaren jarduera partekatzea.
2022/11/17	Udaleko 8 sailetako 9 pertsona	Zumarragako haur eta nerabeen partaidetzarako organoa (OPIA) diseinatzeko hainbat esperientzia ezagutzea.
2022/12/16	Udaleko 6 sailetako 8 pertsona	Aukeratutako OPIAren eredu eta diagnostikoaren emaitzak ezagutzea, eta Haurren Lagun den Hiria barneko koordinazio-mahaia funtzioak eta Plana prestatzeko prozesua aztertzea.

2023KO BILEREN ZERRENDA:

BILERAREN DATA	PARTAIDEAK	HELBURUA
2023/02/23	Udaleko 6 sailetako 10 pertsona	Ekintzak proposatzea eta Haur eta Nerabeen Tokiko Planean txertatzea udalerriko haurren eta nerabeen egoerari buruzko diagnostikotik eratorritako erronkak kontuan hartuta.
2023/03/09	Udaleko 6 sailetako 9 pertsona	Zumarragako Haurren eta Nerabeen Kontseiluaren laneko gaia eta Planera egindako ekarpenak ezagutzea.
2023/04/20	--	Plana eta Mahaia funtzioak aurkeztea.

2. Nork parte hartzen du?

Gaur egun, **Udaleko 10 sailetako 15 arduradun politikok eta teknikariek** hartzen dute parte guztira mahaian. Gazteria; Euskara eta Hezkuntza; Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna; Bertako Administrazioa eta Herri Partaidetza; Ekonomiaren Garapena, Tokiko Garapen eta Berrikuntza; Hiri eta Landa Garapena; Herri Segurtasuna; Kultura eta Festak:

Zuzendaritza	Arduradun politikoa	Arduradun teknikoa
Gazteria	Nerea Errasti	Koro Inaraja
Euskara eta Hezkuntza		Aitor Lizarazu
Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna	Arantxa González	Beatriz Arbizu Ane Osés
Bertako Administrazioa eta Herri Partaidetza	Rosa Maiza	Lucia Ocariz
Ekonomiaren Garapena, Tokiko Garapen eta Berrikuntza		Ainhoa Barbancho
Hirigintza	Mikel Serrano	Mariano Cantalapiedra
Landa eremua		Bittor Areizaga
Herritarren Segurtasuna		Jose Angel Maleta
Kultura eta festak		Izaskun Larrañaga
Kirolak		Joseba Angulo

3. Zer funtzio du?

Honako hauek dira Mahaia funtzioak:

- 2023-2026ko Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren jarraipena egiteko **ohiko bileretan** parte hartzea (HAH zigilua eskuratzeko prozesuan eta ondoren, ekintza esanguratsuenek aurrera jarraitu dutela bermatzeko);
- Lotura-lana egitea haurrei, nerabeei eta haien familiei zuzendutako Udalaren jarduerak garatzeari buruzko informazioa** Udaleko gainerako langileei (haien sail eta erakunde baitan) eta harremana duten kanpoko beste eragile batzuei helarazteko;
- Material jakin batzuk (diagnostikoa, memoriak...) prestatzeko **informazioa biltzeko une zehatzetan elkarlanean** aritzea;
- Udalaren plana ebaluatzearekin eta prestatzearekin** lotuta gogoetarako eta lanerako saio espezifikoetan parte hartzea (estrategiak, helburuak, jarduerak eta abarrak partekatzea);
- Zumarragako Haurren eta Nerabeen Udal Kontseiluaren** jardura eta lana ezagutzea eta, partekatutako jardueraren bat abian jarriz gero, Kontseiluari gai jakinen baten inguruko gogoeta egin dezala eskatzea, Kontseiluaren agenda bideratzea eta abar;
- Beste funtzio batzuk:** mahaian partaide diren sailetarako interes berezia duten gaiak lantzea; barne mailako prestakuntza-saioak antolatzea; UNICEFen Haurren Lagun den Hiria zigilua duten beste udalerrri batzuekin esperientziak trukatzeko eta abar.

4. Noiz biltzen da ohiko izaerarekin?

Barneko Koordinazio Mahaia ezohiko bileran hartutako erabakiaren arabera (2023/12/16ko Akta), mahaia **urtean hiru aldiz ohiko izaerarekin bilduko** dela adostu da. Bilera horien helburua izango da bere funtzioen arabera honako hauetan parte hartzea:

- Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren** jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Haurren eta Nerabeen Udal Kontseiluaren** jarraipena egitea.

	Noiz?	Zertarako?	Nola?
PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	Otsaila edo martxoa	Planaren urteko jarraipena egiteko eta aurrez ikusitako ekintzen garapen maila eta inpaktua zein izan den ebaluatzeko, Planaren hasiera batean aurrez ikusi gabeko ekintza berriak gehitzeko eta abar.	<ul style="list-style-type: none"> Planaren plangintzarekin lotutako eremuan¹ daude jasota aurrez ikusitako ekintzen betetze maila eta adierazleen emaitza, eta hasiera batean aurrez ikusi gabeko ekintza berriak gehitu dira. Ekintzen garapenarekin lotuta sail bakoitzak egiten duen balorazioa jasotzen da aktan. Hala, arreta berezia jartzen da ezartzeko garaian izandako zailtasunetan, jardunbide egokien trukean eta antzeko gaietan. Aktan jasota dago Planaren inpaktu arloek haurren eta nerabeen bizikaltatean eta ongizatean zer eragin duten eta hori guztia nola ebaluatu behar den.
HAURREN ETA NERABEEN UDAL	Maiatza edo ekaina	Zumarragako Haurren eta Nerabeen Udal Kontseiluaren laneko prozesua nolakoa izan den, tokiko erakundeak zer proposamen egin duen eta organo horretan izandako	<ul style="list-style-type: none"> Kontseiluaren Jarraipen Memoria aurkezten da² Kontseiluaren jardura eta mahaigaineratutako proposamenak zein diren jakiteko. Espazio horretako ordezkariak egindako inkestako emaitzak aurkezten dira³ etengabeko hobekuntza oinarritzat hartuta, gune horrekiko asebetetzea zein den jakiteko.

¹ Plangintza-eredua gauzatzeko-eparekin, ekintza bakoitzaren hartzaile diren kolektiboekin, ikuspegiekin, aurrekontuarekin, jarraipeneko adierazleekin eta abarrekin lotuta Planaren eta informazio zehatzeko gehitutako ekintza guztiak jasotzen dituen tresna da.

² Haurren eta Nerabeen Udal Kontseiluaren jarraipenerako urteko memoria izenekoan ikasturtez ikasturte partaidetza-organoko hori nork osatu duen (sexuaren, ikastetxearen eta abarren arabera), saio bakoitzean zenbat lagunek parte hartu duten, landutako gaiak zein diren, adostutako akordioak eta abarrak jasotzen dira.

³ Haurren eta Nerabeen Udal Kontseiluaren urteko inkesta izenekoak ordezkariak ikusitakoarekiko, esperientziarekiko eta jarduerarekiko duten asebetetzearen inguruko informazioa ematen du. Inkestaren emaitzak HAH zigiluaren jarraipeneko adierazleen barruan daude.

	Noiz?	Zertarako?	Nola?
KONTSEILUAREN JARRAIPENA		partaidetzarekiko bere asebetetzea zein izan den jakiteko.	<ul style="list-style-type: none"> Aktan jasota daude Kontseiluaren jarduerarekin lotuta mahaiak egindako balorazioak.
	Iraila edo urria	Zumarragako Haurren eta Nerabeen Udal Kontseilu berriari laneko proposamenak edo gaiak proposatzeko eta, hautatutako gaiaren arabera, sailen eta Kontseiluaren arteko elkarlanerako aukera posibleak aztertzeke.	<ul style="list-style-type: none"> Ikasturte berrirako mahaiak proposatutako laneko gaiak jasotzen dira aktan. Ikasturte berriari gai edo lan-proposamen batzuk garatzeko mahaiak proposatutako elkarlanerako aukerak zein diren jasotzen da aktan.

5. Noiz biltzen da ezohiko izaerarekin?

Mahaia lan hauek aurrera eraman ahal izateko behar adina aldiz biltzen da ezohiko izaerarekin:

- Udalerriko haurren eta nerabeen egoerari buruzko diagnostikoa eguneratzeko informazio-trukea;
- Haur eta Nerabeen Tokiko Plan berria prestatzeko ekintzak proposatzea;
- Mahaiaren jarduera ebaluatzea: Zer ari da ondo funtzionatzen? Zein da lanaren antolaketarekiko asebetetze maila? Zein da bertako eragile ugariak gune horrekiko duten konpromiso maila? Zein dira hautemandako zailtasun eta ahuleziak?
- Udalerriko gizarte-erakundeetako ordezkariak gonbidatzea kontsultaren bat egiteko edo Udalaren jardueraren batekin lotutako informazioa hedatzeko;
- Haurren Lagun diren Hiriak sareko beste esperientzia interesgarri batzuk ezagutzea;
- Mahaian kezka eragiten duten gai puntualak jorratzea;
- Eta abar.

6. Zein da 2023-2026rako aurrez ikusitako mahaiaren jarduera?

Honako hauek dira Haur eta Nerabeen Tokiko I. Planaren baitan aurrez ikusitako mahaiaren ohiko bilerak:

